

» KONTZERTUA

Ilusioa eta eskarmentua



Montserrat Auzmendi del Solar

Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak, hamazazpi urtetako ibilbidean, fruituak eman ditu, dudarik gabe. Fruitu hauen artean, Musikene Orkestra Sinfonikoa aipagarrienetako bat da. Gauza bat da bakarlariak trebatzea, artistak formatzea, baina formazio hori hankamotz geldituko litzateke ikasketa planek ikasleak talde instrumental handiagoetan parte hartzera bultzatuko ez balituzte.

Asmo horrekin eratu zen ikastegi honen Orkestra Sinfonikoa, eta, Arriaga Antzokian entzundakoaren arabera, esan dezakegu benetako lan ona egiten ari direla.

Orkestra gazte honen ilusio eta adorea-ren kontrapuntu gisa, Donostiako Orfeoia-aren eskarmentua izan genuen taula gainean, eta, bien artean, benetako gutizia den Cherubini-*ren Requiema* interpretatu zuten, Víctor Pablo Pérez maisuaren batutapean. Berezia da requiem hau, famatuak diren beste batzuekin (Verdiren edo Faurérenarekin) konparatzen badugu. Agian Cherubinirena ilunagoa egiten zaigu, baina baditu pasarte tentsiodun eta haserrekorrak tartean. Orfeoia jakin izan zuen, orkestraren azpimarrarekin, ñabardura guzti horiek nabarmentzen. Hasierako *Introitus* delikatuak izan genuen. Nahiz eta *Dies Irae* plano samarra atera, *Sanctus* sendo eta enpas-

Bartók eta Cherubini-ren lanak

MUSIKENE ORKESTRA
SINFONIKOA.
DONOSTIAKO ORFEOIA.

Zuzendaria:
Víctor Pablo Pérez.
Bilboko Arriaga Antzokia
Maiatzaren 13a

*Musikene Orkestra Sinfonikoa
eta Donostiako Orfeoia,
Bilboko Arriagan*

tatua entzun genuen. Bukaera, erabat mistikoa, emanaldiaren une onenetakoa izan zen.

Baina obra hau ez zen izan saioaren eragin-
garri bakarra. Béla Bartóken *Biola eta orkestrarako kontzertua* aukera paregabea izan zen Yana Kutxerova biola jotzaile gaztearen luzimendurako. Errusian jaiotako musikariak Musikene ikastegian jaso zuen formazioa. Sari ugari jaso ditu hainbat lehiaketatan eta kontzertu asko ere eman ditu Europan zehar. Teknika segurua erakutsi zuen, eta, inportantea, soinu afinatu eta beroa, oso atsegina. Horrez gain, adierazkortasun orekatua du, elegantea. Bartóken kontzertua ez da lan erraza. Konpositorearen berezitasunak –folklorearen eta abangoardiaren uztartze pertsonala, hori guztia forma sendo eta tradizional batean– ongi adierazteko Kutxerovak duen heldutasun musikala behar da. Publikoa txundituta geratu zen. Zorionak! ■

